

LEHEN KAPITULUA

Nire barruko ahotsaren agindua, edo nola
hartu nuen behi memoriok idazteko erabakia.
Elurte baten oroitzapena

1. Nor da *Setatsua*? Nondik dator kio izena? Zelan hitz egiten du?
2. Zer kontatu zion *Bidani* izeneko behiak barruko ahotsari buruz?
3. Zelan lagundu zion Setatsuak bere bizitzako aurreneko neguan?
4. Zer adierazten dute ondoko esaera zaharrek:
 - *Zer uste huen zela bizitzea? Etzan-etzanda jarri eta dena sinestea?*
 - *Mendi elurtua, beti aspertua.*
 - *Ardia eta behia, bata makala eta bestea nagia.*
5. Zer pentsatzen dute behi izateari buruz Setatsuak eta protagonistak? Zer da eurentzat *ardi* izatea?
6. Noiz eta non gertatzen dira ekintzak? Noiz kontatzen ditu narratzaileak bere memoriak? Zergatik kontatzen ditu?

Gogoetak

1. Hitz egidazu zeure barruko ahotsaz:
Zer esaten dizu? Zelan laguntzen dizu? Borrokan ibiltzen zara berarekin?
2. Komentatu (5 lerrotan edo) ondoko esaldi hau:
Hemen ikusten da zein gauza gutxia garen!
3. Zeure esperientziatik abiatuz, erlazioa itzazu: bakardadea, asperkeria, beldurra.

Hiztegia. Eman ondoko hitz hauen esanahia:

marruka, zipitzik, zima, ailobre, arestian, setatsua, elur-mataza, elur jasa, uxar egin, belazea, xator, ziraun, surangila, zapuztu, bidatzurrak, petralku, hotsa ibili, dardarizoka, kimu, koxkorra, teinkatu, lauhoan, belar izpi, berealditako, pendiza, apika, uhurika, herio, piririka, intzirika, buruzka.